



Pil-pilean

TRUKOIA

Soraluzeko hilabetekaria
2023ko iraila · 402. alea



IÑIGO LARRAÑAGA
**"IRAKASLE ONA DA
IKASLEAK AURRERA
EGIN DEZAN
LORTZEN DUENA"**



PIL-PILEAN 402

2023ko iraila

Azaleko argazkiaren egilea:
Fernan Oregi.

Aurkibidea

- | | | |
|----|--|---|
| 4 | Elkarrizketa David Lindemann | IRITZIA |
| 6 | Begira SAPAko pabiloia | 3 |
| 8 | Zer berri Aktualitateko albisteak | Neuretik Lorea de Castro <i>Urrink edo nola ulertu sormena</i> |
| 14 | Argazki bidez Mesedeetako jaiak | 16 |
| 18 | Erreportajea Iñigo Larrañaga
Sarriegi irakaslea | Gutunak Arianne Uhamuno
<i>Azaroaren 4an Bilbora</i> |
| 24 | Kirola Hockeya, tarifa finkoa,
errugbia eta futbola | 16 |
| 26 | Kultura Udal liburutegia, Juan
Manuel Arruabarrena, Udazkeneko
antzerki zikloa eta oharrak. | 17 |
| 28 | Nondik nora Ane Yabar | Komiki tira |
| 30 | Zerbitzuak Zorion-agurrak,
oroitzak, iragarki laburrak... | 17 |
| | | Hausnarketa Zertarako erabiliko
zenuke SAPAko espazio berria? |
| | | 17 |
| | | Puntua Leire Peñalba
<i>Solidotasunaren krisialdia</i> |



**Pil-plean herri
komunikabidea**

TOKIKOM

Argitaratzailea
Pil-plean Euskaltzaleen
Topagunea
Errabal kalea 15-1, PK 27
20590 Soraluze

Erredakzioa
Ubane Madera
ubane@pilplean.eus
Egoitz Uhamuno
egoitz@pilplean.eus
605 706 086

Publizitatea
publizitatea@pilplean.eus

Zuzentzailea
Miren Gallastegi

Diseinua
Goiena
Oier Larreategi (moldaketak)

Maketazioa
Oier Larreategi

Inprimategia:
Gertu Koop.

Banaketa:
Pil-plean Ekoizpena

Lege Gordailua:
SS-537-2000

Tirada: 2.100 ale

Babesleak

GOKI
erreformak

SORALUCE



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



**SORALUZEKO
UDALA**

Urrink edo nola ulertu sormena



LOREA DE CASTRO

Gizakiok txiki-txikitatik dugu marrazteko, kantatzeko edota dantzatzeko sena. Eman urte eta erdiko ume bati margo kaxa bat, eta horiek jaten saiatzeaz gain (sen hori beste kontu bat da!) gustura asko beteko dizu papera. Kantuan ere hilabete gutxirekin hasten gara, sehaskan edo besoetan gaudenean, gure zaintzailea imitatuz. Eta zer esanik ez dantzaz! Piztu musika eta ikusi nola etxeko txikiena saltoka hasten den. Ez dago marrazten, kantatzen edo dantzatzen ez duen umerik (osasunak hala ahalbidetzen badio, behintzat).

Kultura guztietan errepikatzen den zerbait da, gure espeziearen berezkoak diren jokabideak baitira. Zabaldu mapamundi bat, ausaz puntu bat aukeratu, eta ziur egon han ere marrazten dutela, kantatzen dutela, dantzatzen dutela. Eta ez haurrek bakarrik, helduek ere bai.

Baina... zu, irakurle: noiztik ez duzu marraztu? Kantatu al duzu aspaldi? Agian ni bezala ez zara batere dantzari ona...

Orain dela egun batzuk, kajoi batzuk ordenatzen ari nintzela, duela urte batzuetako koaderno bat topatu nuen. Bertan, aspaldi "urrink" edo "inktober" mugimenduaren baitan eginiko marrazkiak topatu nituen. Esan dudan bezala, ez naiz dantzari ona, eta esan beharra daukat marrazketan ere ez naizela oso fina. Hala ere, gustura ikusi nituen marrazkiok, baita seme-alabei erakutsi ere. Eta zer den "inktober"? Ba bi hitz anglosaxoiren batzea: ink (tinta) eta october (urria). Hortik dator "urrink": urria+ink. Mugimendu honek, sormena eta marrazkigintza bultzatzeko asmoz, urtero deialdia egiten du jendea animatuz urrian zehar egunero marrazki bat egitera. 31 egun, 31 marrazki. Marrazki librea izan daiteke edo, bultzadaxoa behar izan ezker, zerrenda bat topatuko duzu sarean, egun bakoitzak hitz bat edo gai bat esleituta duena eta lagungarri izan daitekeena.

Urrink", "urrkant" edo "urrdantz". Marraztu, kantatu edo dantzatu. Zuk aukeratu. Baina gelditu, apurto inertziak, tarte bat hartu.

Berreskuratu zure sena eta eman bide sormenari!

**URTERO DEIALDIA
EGITEN DU JENDEA
ANIMATUZ URRIAN
ZEHAR EGUNERO
MARRAZKI BAT EGITERA**

“Kritikatzen zutenaren ezer ere ez da desagertu edo konpondu”

TESTUA UBANE MADERA ZANGITU

ARGAZKIA: FERNAN OREGI

Iruñeko Katakarak argitaletxaren enkarguz, David Lindemann (Hanburgo, 1976) hizkuntzalari eta itzultzaileak *Rote Zora* liburua itzuli du alemanetik euskarara. Aste honetan aurkeztu du Katakragen eta Sorluzen, dokumental eta guzti, eta beste zazpi bat komunikabidek ere jaso dute liburuaren berri. Liburua, besteak beste, Iratxon eskura daiteke 11 euroan. Rote Zora 70eko hamarkadaren amaieran sortu zen hiri gerrilla feminista izan zen, emakumeak zapaltzen zituen sistema erasotzea helburu zuena, baita armak erabilia ere.

Oihartzun dezentekoa izaten ari da Rote Zora (RZ) liburua; zergatik dela uste duzu?

Gaiak ezustean harrapatzen du jende asko eta interesa piztu: nola egon zitekeen 80ko hamarkadan talde feminista armatu bat eta ea zelako ibilbidea zuen eta zer gai lantzen zituen. Hori da liburuan azaldutakoa. Rote Zora taldearen testuak biltzen ditu liburuak, ekintza konkretuei lotutako hainbat komunikatu, mugimendu feministaren aldizkari erreferentziatzeko batean, Emma aldizkarian, egindako elkarrizketa eta azken testua da halako hausnarketa bat, ibilbidearen amaieran idatzi zutena iraganari eta etorkizunari begira. RZk testu gehiago ditu, baina horiek hautatu ditugu eurek idatzitakoak direlako eta irakurlea garaian kokatzeko.

Nortzuk osatzen zuten Rote Zora?

Zelula Iraultzaileetatik (RZ siglak alemanez) banandu ziren emakume batzuk. Emakumeen kontrako indarkeria eta abortuaren debekua ziren emakumeek landu nahi zituzten gai nagusiak, eta, talde mistoan borrokan ibili behar izaten zuten gai horiek lantzeko, ez zuten gustuko gai horiek emakumeen gaitzat jotzea eta gai orokortzat jotzen zituzten gaiak, berriaz, talde mistoak lantzeak. Horrekin apurtzearen sortu zuten talde propioa.

Zela funtzionatzen zuten?

Talde autonomoetan, zelula txikietan, inkluso bata bestearen berri izan gabe. Ez zegoen egitura

zentralizaturik. Erabiltzen zituzten testuetako batzuk ziren teorikoak eta beste batzuek irizpide praktikoak ematen zituzten, nola gauzatu ekintzak-eta. Ez ziren %100 aktibista. Batzuetan Iluntzeko Aktibista deitu izan zieten eta horregatik zailagoa izan zen jakitea zeintzuk ziren zehazki. RZko emakumeek bizitza normala egiten zuten, zentro komertzial higuigarrietan erosketak egiten zituzten, zinera joaten ziren eta iluntzean beste gauza batzuk ere egiten zituzten. Zein emakume ziren zehazki ez dakigu. Bakarrik bi izen azaldu ziren publikoan, haiek izan ziren harrapatu eta espetxeratu zituztenak.

Zelako ekintzak egiten zituzten?

Adibidez, industria textilaren kontra, kanpaina aldiberekoa egin zuten Alemanian zein Hego Korean, Koreako emakumeekin batera. Garai hartan, Hego Korean ekoizten zen arropa gero Europan oso merke saltzeko. Hego Korean langileak greban zeudela, Alemanian, Rote Zorak saltokiei zuzenean egin zien eraso. Kanpainak arrakasta handia izan zuen.

Zenbat eraso edo ekintza armatu egin zituzten?

45 eraso baino gehiago, taldea 1995era arte mantendu zen. Ez zuten inoiz pertsonarik erasotu edo zauritu. Azaltzen dute hainbat ekintza ez zutelako egin ezin izan zutelako baztertu inor ez zauritzerik. Bortxatzaileen, emakume trafikatzaileen edo bestelako gaitoen autoak, lorategiak eta halakoak erasotzen zituzten. Testuetako batean esaten dute ea zergatik ez gaituen beldurtzen gizon batek emakumeak saltzea eta erostea baina bai beldurtzen gaituen gizon horren autoa sutan egoteak.

Zergatik desagertu zen Rote Zora?

Errepresioak jo zituelako. Oso ganean zituzten Estatuko segurtasun indarrak. Bi espetxeratu egin zituzten eta beste hainbat erbesteratu edo desagertu egin ziren.

RZ-k lantzen zituen gaiak orain ere aplikagarriak dira?

Kritikatzan dutenaren ezer ere ez da desagertu edo konpondu.




Modernitatearen ikur

ARGAZKIA: FERNAN OREGI

TESTUA: SORAPEDIA

SAPako lehen nabe luzean, burdinazko egitura dotorea bistaratu da adreiluen artetik, bere garaian, XX. mendearen hasieran, modernitatearen ikur izan zena Parisko dorre luzearen eta beste hainbat eraikinen bidetik. Egitura hori 1917-1918 bitartean eraiki zuten, errematxatutako sareta-zutabeak eta -habeak erabiliz eta AEBetako estiloko zertxak (egitura triangeluarak) ere baliatu zituzten. Baina, burdina estali nahi zutelako edo besterik gabe, eraikina bideragarria izan zedin hala eskatzen zuelako, barreneko armazoa zeharo estali zuten: bitarteak adreiluz bete zituzten, eraikinaren angeluak atxikitako pilastra faltsuz inguratu eta paretaren kanpoaldean, gainerako eraikinetan bezala, molduradun erlaitzak atera zituzten, edergarri. Arkitektoa Manuel González de Rueda y Gil izan zen. Hasierako bi nabeak egiteko egitura metalikoak erabili zituen, eta ondorengo eraikinetan, berriz, porlana. Ia ehun urtez lanerako aterpe izan zena, laster, aisialdirako erabiliko da. Ea etorkizunean ere asmatzen dugun lana eta aisialdia uztartzen.







Malmeroneko presa, aste honetan.

Partaidetza prozesua

Udalak presen auzia aztertzeko partaidetzazko prozesua egingo du urrian eta azaroan; hiru saio ireki egingo dira, adituen eta herritarren iritzia entzuteko

Presen auzia lehen lerrora bueltatuko da udazkenean, izan ere, urrian eta azaroan zehar, Udalak "eztabaidarako partaidetzazko prozesua" garatuko du "ibaiko presekin zer egin" eztabaidatzeko.

Unai Larreategi alkateak azaldu duenez, prozesuan "presekin zer egin aztertuko da, baina kabida izango dute paisaia eta berreskurapenarekin lotutako gaiek ere". Prozesua amaitu eta gero, "adituen eta herritarren ekarpenak entzun eta aztertu ostean", erabakiko du Udalak "zer bide jarraitu". Alkateak nabarmendu duenez, halako prozesuen bitartez, Udalak "eztabaidarako espazioak" eraiki nahi ditu,

"herritarrei, komunitate eta herri moduan, hausnartzeko eta antolatzeko gaitasuna emango diotenak".

Prozesua EMUN aholkularitzak gidatuko du eta antolatuko diren saio irekietan, hainbat adituk eta erakundetako ordezkariak parte hartuko dute.

Hiru saio ireki

Prozesua urrian eta azaroan egingo dituzten hiru saio irekietan gauzatuko da (Udalak datozen egunetan jakinaraziko du saioak zein egun konkretutan egingo diren). Lehen saioa, urriaren bigarren hamabostaldian egingo da eta "gaia kokatzeko eta

abiapuntuko narratibak jasotzeko" baliatuko da: prozesua aurkeztuko dute, Gaizka Aranguren adituak "hitzaldi pedagogikoa" eskainiko du (irakurri aurrerapena ondoko orriko elkarrizketan) eta taldekako hausnarketaren bitartez "herritarren narratiba desberdinak" jasoko dituzte.

Handik hamabost egunera egingo dute bigarrena eta baliatuko dute "presetarako esku-hartze proposamenak aurkezteko eta ondareaz jabetzeko". Bigarren saio horretan, Aranzadik eta Urak Agentziak parte hartuko dute, hurrenez hurren, ondare materialaz eta uholdeen arrisku mailaz jarduteko. Azkenik, taldekako hausnarketaren bitartez, herritarren "ibaiarekiko bizipenak" jasoko dituzte, "ondare immaterialeranzko hurbilpen-ariketa xume gisa".

Hirugarren eta azken saioa, berriz, azaroaren bigarren hamabostaldian egingo da eta "erdibideak eta alternatibak esploratzeko eta erabakira gerturatzeko" baliatuko dute. Bertan, Udalak prozesuan jasotakoak laburbilduko ditu eta "erabakia hartzeko irtenbide bat" mahaigaineratuko du, bertan dauden herritarren iritzia entzuteko. Ondoren, "prozesuaren txostena" osatuko da eta Udalak baloratuko du zer egin.

"ADITUEN ETA HERRITARREN EKARPENAK ENTZUN OSTEAN ERABAKIKO DA ZER BIDE JARRAITU"

Ondarearen eta ibaiaren arteko zubigintza

GAIZKA ARANGUREN ADITUA ONDARE INMATERIALEAN (LABRIT MULTIMEDIA)

Udalak Gaizka Aranguren kazetari eta historialari nafar ezaguna gonbidatu du presen auzian bere ikuspegia eman dezan. Aranguren doktorea da historian eta aritua eta aditua da ondare material eta immaterialaren arloan. ICOMOS-Espainiako Kultura Ondare Immaterialeko Batzordeko partaidea da eta Estatu Espainiarreko Antropologia Elkarteko (ASAE) kidea ere bai. Profesionalki ere, arlo horretan dihardu, Labrit enpresaren Zuzendari Nagusi gisa. Ibaiei dagokienez, Euskal Herriko hainbat ibairi buruzko ikusentzunezkoak egin ditu eta gainera, "biziki" maite du lumaz ibaian arrantza egitea.

Zure ustez zein ekarpen egin dezakezu presen auzian?

Ni ondarearen eta ibaien osasunaren arteko zubiak eraikitzen saiatzen naiz. Soraluzen ere horrela egiteko eskatu didate eta uste dut ekarpena egin dezakedala.

Zein izan daiteke Soraluzen auzia bideratzeko modurik egokiena?

Halako presak edo oztopoak herriguneetan daudenean, identifikazioa eman ohi da herritarren eta parajearen artean eta hori ulertu egin behar da. Presa horiek ekarpen bat egin diote inguruan bizi izan den komunitateari; hori oso inportantea da eta oso aintzat hartzekoa. Horrekin batera, kontuan hartu behar da ingurumen ikuspegia eta



Aranguren Urrobi ibaian. IDOIA ZABALETA

normalean gertatzen zaiguna da gizakiok ez ditugula ezagutzen era honetako eraikuntzek ibaiaren ekosisteman sorrarazten dituzten kalteak.

Beraz, zer egin daiteke? Ba, kasu bakoitza aztertu! Batetik, neurtu ondarearen ikuspegitik eta komunitatearen iruditerian duten garrantzia; bestetik, ibaiari sortzen dioten kaltea, eta bi alde horien arteko zubian, puntu batean edo bestean, elkartuko gara seguru. Horrez gain, badira uholde arriskuari eta hirigintzari lotutako alderdi legalak eta horiek ezin ditugu baztertu. Gustatu ala ez, ezarriko direlako.

"SUERTATU OHI DA IDENTIFIKAZIO BAT PARAJEAREN ETA HERRITARREN ARTEAN"

Beste leku batzuetan ere badira presak botatzeko proiektuak. Horietan, zer ari da gertatzen?

Euskal Herrian badaude bereziki ulergarriak eginen zaizkigun adibideak. Har ditzagun, esaterako, batetik Enderlatsako presa, Bidasoan, *Izokinen presa* gisa jotzen zena, bota egin dena, eta bestetik Burgikoa, Erronkarin, almadiak jaisten diren hori.

Enderlatsakoan eztabaida egon zen. Bazen arrantzale komunitate bat defendatzen zuena presa egokia zela izokinek babes har zezaten, baina zientziak erakusten duena da guztiz kontrakoa: oztopoek min egiten dietela arrainei, gainditu behar dituztelako. Kasu horretan zalantza gutxi zegoen. Goazen Burgiko kasura. Denok izanen dugu gogoan nola urtean behin almadiak bat edo bi jaisten diren hortik. Estatu mailako festa turistikoa da eta jende asko joaten da. Egun, Ezka ibaitik ez da egurrik garraiatzen baina bertako imaginarioan oso errotuta dago lanbide zaharra eta, gainera, horren inguruan aktibitate ekonomikoak sortzen da, bertan bizitzen laguntzen duena. Hori guztia aintzat hartuta eta jakinik ere presa horrek ibaiari min egiten diola, nik ez nieke proposatuko gaur Burgikoei bota dezaten. Horregatik diot kasu bakoitza aztertu behar dela eta informazio guztia jaso, baloratu ahal izateko.

Ardurak banatuta

Agintaldi berrian, bi liberatu izango dira Udal Gobernuan; horrez aparte, Udal batzordeak osatuta eta batzordeburuak izendatuta daude, eta hauen funtzionamendua ere zehaztu dute

2023-2027 agintaldiko lehen osoko bilkuran -uztailak 5- Udal Gobernuak, besteak beste, agintaldi berriko Udalaren funtzionamenduaren nondik norakoak finkatu zituen.

Besteak beste, jakinarazi zuten bi zinegotzi liberatu dituztela; bata, alkatea, Unai Larreategi, dedikazio osoarekin -urtean 30.300 euroko soldata gordina, hilero 2.164,29 euro-, eta, bestea, Maite Quintanilla zinegotzia, %80ko dedikazioarekin -urtean 26.700 euroko soldata gordina; hilero 1.907,14 euro (irailetik aurrera)-. Bi dedikazioak ordaintzeko 2023ko aurrekontuan liberazioetarako izendatuta dagoen partida bera baliatuko dutela esplikatu zuten, hau da, lehen EAJ-PSE-EE-ren Udal Gobernuak alkatea jardun osoz liberatzeko bideratzen zuen diru kopuru berbera -pandemian ez ezik-.

Bi batzorde bakarrean

Bestelako aldaketen artean, berriz, Soraluzeko Udala osatzen duten batzordeei buruz, alkateak jakinarazi zuen aldaketa bat ezarriko dutela abiarazi berri duten agintaldian: orain arte bi batzorde desberdin izan dira Obrak eta Mantentze Lanak eta Hirigintza, bada,

aurrerantzean batzorde berean kudeatuko dira hiru gaiak, Hirigintza, Obrak eta Herriko Mantentze Lanak. Gainerako batzordeak bere horretan mantenduko dituzte eta orain, guztira 13 izango dira.

Lau kide bakoitzean

Batzorde horien gidaritzari dagokionez eta oposizioaren galderari erantzunez, berriz, esplikatu zuten dekretu bidez izendatuko zituztela batzordeburuak. Bada hori ere egin du Udal Gobernuak eta



Uztaileko osokoan.

dagoeneko hasi dira eraketa berriarekin lanean. Batzorde bakoitzaren arduradunak beheko taulan daude adierazita. Arduradunekin batera, beste hiru kidez osatuta daude batzorde guztiak, Udal Gobernuko kide bat eta oposizioko bi kide.

Batzordeburuak zeintzuk diren

- **Kontuak eta Ogasuna** Unai Larreategi Azurmendi.
- **Plenoko gai orokorrak** Unai Larreategi Azurmendi.
- **Garapen ekonomikoa, industria eta enplegua** Ainara Osoro Txurruka.
- **Pertsonala** Unai Larreategi Azurmendi.
- **Hirigintza, obrak eta herriko mantentze lanak** Unai Larreategi Azurmendi.
- **Hezkuntza** Ana Maiztegi Gorostidi.
- **Kirolak eta kiroldegia** Ione Alberdi Alvarez.
- **Hizkuntza politika** Iker Uzin Larrañaga.
- **Kultura** Maite Quintanilla Lete.
- **Ingurumena eta Landa Garapena** Ione Alberdi Alvarez.
- **Osasuna, Gizarte Ongizatea eta Inmigrazioa** Iker Uzin Larrañaga.
- **Parekidetasuna** Ainara Osoro Txurruka.
- **Haurrak eta gazteak** Maite Quintanilla Lete.



Pascual Churrucako orubea, lantegia eraitsi ondoren.

2027rako eraikiko dute, ondo bidean

Bukatu dituzte Pascual Churrucako lantegia eraisteko lanak eta orubea gertu dago ondorengo faseetarako

Pascual Churruca lantegia eraisteko lanak bukatuta, orubea garbi eta laututa laga du Moyua enpresak, harako iragarritako etxeak eraiki ahal izateko.

Patricia Borinaga Soraluzeko ordezkari sozialistak jakinarazi

duenez, proiektuaren erredakzio lanak lizitzatzeko plegua lantzen dabil Jaurlaritza, erredakzio lanak urtea amaitu baino lehen esleitzeko helburuarekin. Eusko Jaurlaritzak dituen

aurreikuspenaren arabera, 2024an idatziko da proiektua eta 2024a amaitu aurretik lizentzia lortuko balitz, 2025eko hasieran proiektuaren exekuzio proiektua egingo dute.

Behin hori guztia eginda, Jaurlaritzaren asmoa da 2025ean etxeak eraikitzeo obrak lizitzatzea eta 2027an etxeak eraikitzen bukatzea.

Alokairu sozialekoak

Eusko Jaurlaritzarekin 2021lean sinatutako hitzarmenaren bitartez, Soraluzeko Udalak Pascual Churruca lantegiaren orubea eman zion, bertan Jaurlaritzak 29 etxebizitza eraikitzeo, 2.600 metro karratuko partzelan.

Alokairu sozialeko etxebizitzak izango dira, Alokabidek kudeatuko dituenak. Etxe berrien behe-barruak, berriz, Soraluzeko Udalak erabiltzeo izango dira. Horrez aparte, etxebizitzetatik lau Udalaren esku geldituko dira Olaldeko eremua garatzen denean, bertako etxebizitza jabeei ostatu emateko.

Itxaropenako haragi gisatu lehiaketa eta bazkaria urriaren 20an izango dira

Iraileko txangoa eginda -argazkian-, urrian egiten den Haragi Gisatu Lehiaketari eutsiko diote orain Itxaropena Erretiratuen Elkartean.

Iragarri dutenez, lehiaketa urriaren 20an izango da eta urriaren 16ra arteko epea dago izena emateko, Itxaropenako iragarki taulan. Zortzi bikoterendako lekua dago.

Bestalde, gisatu lehiaketaren ondoren egiten den bazkaria ere ari dira antolatzen. Bazkarian, gehienez, 84 lagunendako lekua izango da, parte hartzeo izen-ematea urriaren 3tik 16ra arte izango da zabalik, biak barne, martitzenetan edo eguenetan, 11:00etatik 12:00etara, Itxaropenako bulegoan.



Eguazteneko txangoan.



Gurasoak eta Pil-pileaneko eta Udaleko ordezkariak ekimenaren aurkezpeneko bileran.

'Haurren aurrean' ekimena abiatzear

'Haurren aurrean helduok heldu' ekimenak hizkuntza portaera eredugarriak bultzatu nahi ditu guraso eta hezitzaileen artean.

Helduek umeengan duten eraginaz jabetuta, *Haurren aurrean helduok heldu* ekimena abiatu dute "helduok hizkuntza portaerak ere transmititzen ditugula" konturartzeko. Eguazteneko aurkezpenean

azaldu zuten, urriaren 19tik 29ra bitartean, 12 urtera bitarteko umeekin harremanetan dauden helduok (gurasoak eta hezitzaileak) gonbidatuko dituzte hamabost egun horietan ekimenaren

identifikagarria jantzi eta "euskara ahalik eta gehien erabiltzera eta umeen erreferente izatearen garrantziaz hausnartzera". Ekimena Euskal Herriko Euskaltzaileen Topaguneak bultzatu du.



EIDER VARELA GURASOA

"Gurasoak eredu gara eta interesgarria izan daiteke herriko familiak euskaraz harremantzeko aisialdiko plan batzuk antolatzea".



MARTIN AZKARATE GURASOA

"Ekimenak eman dezake aitzaki bat gurasoen artean hizkuntzaren gaiaz berba egiteko eta lotsak kentzeko".

bertako
igogailuek | ascensores
Benetako orotariko zerbitzua
100€-tik/hileko

Igogailuen mantentze-lanen eskaintza zorrotzena
2.500 bezerok gogon dute konfiantza
943 903 450 bertako.eus

Soraluzeko AEK euskaltegia
2023-2024 EUSKARA IKASTAROAK
MAILA GUZTIAK A1, A2, B1, B2, C1, C2 (Eibarko euskaltegia)
Berrikuntza! 16-18 urtekoek C1 mailako ikastaroak 20 euro matrikula zabalik irailaren 29ra arte
Azken egunak!! anima zaitetz
Baltegieta kalea 2, 943 75 11 43 · soraluze@aec.eus

Laneko giroa nahasi Egoitzan

Egoitzako langileen lan-txandak erabakitzeko bozketaren bueltan, asteon hango langileen artean dauden desadostasunak azaleratu dira

Aste honetan, laneko giroa nahasi dagoela bistaratu da Mesedeetako Egoitzan, ELA eta LAB sindikatuen batzordeek mezu gurutzatuak publiko egin ostean.

"Zuzendaritza eraginkorra"

ELA sindikatuak deituta, martitzenean, elkarretaratzea egin zuten hainbat langilek, senidek eta pentsiodunen mugimenduko hainbat kidek. Bi puntu salatu zituzten: batetik, egoitzaren kudeaketa eta haren eragina, eta, bestetik, eta langileen egutegia erabakitzeko bozketa. Oro har, salatu zuten LABek "entzunger" egin diela euren eskakizunei.

Kudeaketari dagokionez, salatu zuten zeregin hori Aita Menni enpresari emateak ez duela arazoa konpondu: "Enpresa pribatu baten irabaziak areagotu dira eta bitartean egoitzan dagoen egoera okerragoa da: pertsonal falta dago, egoiliarak behar bezala artatzeko balibiderik gabe daude eta ezinbestekoa da zuzendaritza eraginkor bat



ELAkoak protestan, asteon.

egotea eguneroko arazoei aurre egiteko". ELAko ordezkarien esanetan, egoera "jasanezina" da. Horri buelta emateko, ezinbesteko jotzen dute "zuzendaritza eraginkor bat" izatea.

Bestalde, ez dute parte hartu LABen ekimenez ordutegiak bozkatzeko egin den bozketan; batetik, uste dutelako, parte hartu behar dutenak erizain laguntzaileak izan behar dutela, "ulertzen baita erizain laguntzaileen egutegiei buruz ari direla"; eta, bestetik, diote

zenbait langilek kontziliazio neurriengatik edo beste arrazoiengatik dagoeneko sententziak irabazita dituztela". Azkenik, uste dute bozketan "txanda guztiak" bozkatu beharko liratekeela.

"Tratu berezia"

LAB sindikatuak, bere aldetik, ELAren esanak gezurtatu ditu eta salatu du ELAko gehiengo sindikala izan duenean, "eroso" egon dela egoitza kudeatzen duen Aita Mennirekin, eta, horrek ekarri duela "ELAko afiliatuek tratu berezia izatea eta gainontzeko langileek baino baldintza hobeak eskuratzea eta gehiengoa izan duten urteetan horiek mantentzea".

Gaineratu dutenez, orain, langileen gehiengoak LAB bozkatu du "orain arteko egoera amaitu eta aldaketak eskatzeko" eta, horren adibide da lan-txandaren gaineko bozketa, "bertan langile guztiak erabakiko dutelako txandaren inguruan".

Azkenik, salatu dute ELA ez duela "negoziatu nahi izan, azkenengo 8 urteetan eduki duen jarrera mantenduz". Eta "argi utzi" nahi dute "ELAko bozketa deslegitimatuta nahi duela haien afiliatuen eskubideak defendatu nahi dituelako soilik eta ez langile guztienak". Bukatu dute esanez, bozketaren alde egitea "langileen alde borrokatzea" dela.

ELIZPE
HORTZ KLINIKA

Zure gertuko hortz klinika, pertsonalizatu teknologiaz eta egiten dugu. Cad Cam sistema berritzaile erabiliz dugu.

Elizpe, 3 behea
SORIALUIZE
TEL: 943 75 25 67
Rug: 747 57 78 79
e-mail: elizpe@hmail.com

Ordutegia:
Astelehenerdik ostiralera
10:00 - 11:00 eta 16:00 - 20:00

IZAGUIRRE
Igeltzeritza

Eraikin berriak - Kalitateko emaitza
Erreforma - Era guztietako igeltzeritza

50 urteko esperientzia - 610 638 913

Kontulan

Aholkularitza fiskala - Kontabilitatea
Lan-aholkularitza - Zerbitzu juridikoa
Ticket bai - Outsourcing - Aseguruak

www.kontulan.com

Mesedeetako jaiak

TESTUA: ANDER GOMEZ

ARGAZKIAK: UBANE MADERA, JON AGIRRE ETA ANDER GOMEZ.

Irailaren 15etik 17ra bitartean, koloredun banderatzhoek zubia osatu zuten beste behin Gipuzkoa Etorbideko eta Errekaldeko etheen artean, eta bi auzook elkartzen dituen plazan ospatu zituzten Mesedeetako jaiak auzotarrek zein gainontzeko herritarrek.

Gaztetxoek jolasean eman zituzten hiru egunak buruhandiek, eskulanak egiten, futbitoan, puzgarrietan, apar-festan... Nagusiek lehian jardun zuten, token, futbolinean, tortillagintzan eta karta txapelketetan. Gazteak eta helduak jan-edanak (txorizoa, txokolatea, otarrainxka-dastaketa, paella-jana...) eta Dj-ek piztutako giroak batu zituen ordu txikietara arte. Antolatzaileak gustura, jaietan jende asko ibili da-eta.





GUTUNAK

Azaroaren 4an, Bilbora

ARIANNE UNAMUNO LOIDI

PIL-PILEAN EUSKALTZALEEN ELKARTEKO
LEHENDAKARIA

Azaroaren 4an, Bilboko kaleak betetzeko deia zabaldu du euskalgintzak *Oldarraldiaren aurrean: Euskararekin bat, euskaraz bat* lemapean. Soraluzeko Pil-pilean Euskaltzaleen Elkarteak bat egin du ekimenarekin eta egun horretan, Soraluzeko euskaltzaleak Euskal Herri osotik joandako euskaltzaleekin batuko gara Bilbon, argi eta ozen aldarrikatzeko oldarraldi judizialen eta olatu erreakzionarioen gainetik, euskararen normalizazioan eta biziberritzean eragiteko eta sakontzeko unea dela eta beharrezkoa dela jauzi bat ematea datozen urteetan euskarak gure herrian merezi

eta behar duen lekua izan dezan.

Beraz, Pil-pilean Euskaltzaleen Elkartearen izenean dei egiten dizuet Soraluzeko euskaltzale guztioi, azaroaren 4an elkarrekin Bilbora joan gaitezen, arratsaldeko 17:00etan Euskalduna Jauregitik abiatuko den manifestazioan parte hartzera.

Dagoeneko autobusa antolatzeko lanetan dihardugu beste eragile batzuekin batera eta datozen egunetan jakinaraziko dugu herrian noiz eta non eman ahalko den izena.

Plazentziatarak ere euskararekin bat, euskaraz bat!

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.000 (espazioak barne).

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena. Gutuna helarazteko bideak: aldizkaria@pilpilean.eus

KOMIKI TIRA



HAUSNARKETA

SAPAKo lehen pabiloiko obrak aurrera doaz

Han sortuko den espazioa zertarako erabiliko luketen galdetu dugu



**JUAN ANTONIO
GARITANO**

"Jaialdiak-eta egiteko, Gaztañerreko azoka egin daiteke, bertsolarien saioak, aire libreko erakusketak... Halakoak. Bestela, egunerokotasunerako, jarleku batzuk-edo ipin daitezke jendea egoteko, umeendako jolasak... Halako zerbait izan daiteke".



BEGOÑA ETXANIZ

"Aisialdirako orokorrean. Egunerokotasunari begira, kafetegitxo bat ipiniko balute bertan nik uste erakargarriagoa izango litzatekeela gurasoentzako. Kafetegia jarriz gero, jendea joango litzateke hara. Nagusiendako pasealekua ere izan daiteke, aterpean dagoenez".



MARIA JOSE AGUEDO

"Edozeinendako izan liteke aproposa, goizean nagusiendako, euria denean babesa nahi duten gurasoentzako eta gauean, gazteek erabiliko dute; baina bizikidetzeta eta espazioa errespetatu beharko lirateke. Oso ondo ikusten dut espazioa, denondako onuragarria izan daitekeela uste dut".



FRANCISCO BLANCO

"Ekitaldietarako, kontzertuak egiteko, umeen kirol jardueretarako, eguenetako azoka txikirako, eguraldi txarra denean... Egunerokorako, jarleku batzuk ipin daitezke edo egoteko leku bat. Lekua ondo dago, gertu eta aprobetxatzeko modukoa da, lehen baino askoz ere hobeto, lehen jausten zegoen-eta.

PUNTUA



LEIRE PEÑALBA

Solidotasunaren krisialdia

Saihetsezina da gizarteak sufrizten dituen aldaketen kontra joatea eta, horrenbestez, krisialdiak galaraztea, horiek baitira gizartearen aurrerakuntzan laguntzen gaituztenak.

Ustez, likido eta solido kontzeptuek ondo baino hobeto azaltzen dute gaur egungo gizarteak pairatzen duen aldaketa, eta horregatik ezkutaezina da gure gizartea likidotzen ari dela, hau da, gure arbasoek bizi izan duten bitzita egonkor, finko eta aldagaitz batetik, bizimodu malgu eta ezegonkor batera igarotzen ari gara.

Gaur egungo lanak iragankoragoak dira, pertsonen arteko harremanak iheskoragoak, elkarrekiko konpromisoa ahulagoa eta hala ere, ahal dugun neurrian, kontzienteki hautatzen ditugu erabaki hauek. Esan beharra dago, lanaren arloan, adibidez, gazteen artean gehienetan erabakitzeo ahalmen ezak eramaten gaituela lan-egoera ezegonkor batera.

Egia da, finkotasun ezak aukera, esperientzia eta bizipen gehiago ekar liezazkigukeela, lotura gutxiagorekin bizi garelako, baina arriskutsua litzateke ziurgabetasun horretan ito gaitzkeelako.

TXA HONETAN, EZTA ZUEK ERE





Iñigo Larrañaga Institutuko ikasgeletako batean, martitzenean.

"Soraluzetik oso oroitzapen onak eramango ditut"

IÑIGO LARRAÑAGA SARRIEGI SORALUZeko BHI INSTITUTUKO IRAKASLEA

Iñigo Larrañaga Sarriegik (Azkoitia, 1960) 27 urte egin ditu Soraluzeko Institutuko irakasle moduan (tartean, zuzendari ere izan da). Lehenago, Azkoitiako Ikastolan jardun zuen 13 urtez. Abenduan hartuko du erretiroa irakasle lanei agur esanda. Hezkuntzaz, institutuaz, gazteez eta bizitzaz berba egin dugu berarekin.

Testua: **Ubane Madera Zangitu**. Argazkiak: **Iñigo Larrañaga eta Fernan Oregi**.

Soraluzeko gazte mordoia pasatu da bere ikasgelatik eta haietako askorentzako pertsona estimatua da Iñigo Larrañaga. Arrazoi askorengatik: "Jolasorduetan gurekin jolasten zuen irakasle bakarra" zelako, "mila aukera eta laguntza" ematen zuelako ikasteko eta gairatzeko, "benetako maisua" zelako...

Orain erretiratzera doa Iñigo. Eta kostata bada ere, Pil-pileanek lortu du irakasle azkoitiarra elkarrizketatzea, hark argi laga ondoren nahiago zuela ezetz, ez baita batere protagonismo zale, baina, "Pil-pilean delako" erantzun ditu galderak.

Zergatik Soraluze? Ezagutzen zenuen herria?

Ez nuen ezagutzen. Gertutasunarengatik aukeratu nuen. Azkoitiko Ikastolan irakasle nintzela, hura publikatu zenean, Azkoitian plazarik gabe gelditu nintzen; lana izatez banuen, baina Hezkuntza publikoan ziharduten lagun batzuk irakasle plaza publikoa hartzeko gomendatu zidaten. Kasu egin, eta orduan aukeran nituen Irungo, Zumarragako eta Soraluzeako ikastetxeen artean, hauxe aukeratu nuen.

Zelan dituzu gogoan irakasle izan zineneko lehen urteak Azkoitiko ikastolan?

Dezente gogoratzen naiz lehenengo urteekin. Tutore izan nintzen, orduan 6. mailatik 8. mailaraino izaten zen tutore. Irakasle jatorrak ziren. Batzuek gogo gutxi zuten ikasteko, baina oso jatorrak ziren. Oraindik harremana dut haietako askorekin.

Zein ikasgai eman izan duzu?

Lehen urtean Gorputz Hezkuntza eman nuen, baita Euskara ere. Gero, urte askoan Plastika eman nuen eta tutore nintzen gelan Matematika ere ematen nuen. Gero, zuzendaritzatik esan zidaten ea Gela Berezia hartuko nuen eta 6-7 urte egon nintzen Gela Berezian. Beste esperientzia bat izan zen hura. Beste tratu bat izan nuen ikasleekin. Akaso halako gela batean ez duzu ikusten ikaslea horrenbeste aurreratzen, baina beste gauza batzuetan bete egiten zaitu harremanen aldetik, bai gurasoekin, baita ikasleekin ere, beste aberastasun bat ematen dizu. Hona etorri nintzenez, berriz, Lenguako plaza hartu nuen. Eta hiru urtez, berriz, zuzendari ere izan nintzen, baina nire txanda zelako, ez beste ezergatik.

Nola gogoratzen dituzu Soraluzeako institutuko lehen urte haiek?

1996an etorri nintzen. Orduan zuzendaritzan Jose Felix Larruskain, Josu Aranzabal eta Iñaki Gerrickoitia zeuden. Sei bat urte egon ziren

zuzendaritzan. Hasieran, lan asko egiten genuen jolasorduetan-eta, zeren goiko ikastetxeok etorri ziren hona ikastera; B ereduok ziren eta hemen zeudenak D ereduok; bi taldeak uztartzeko, jolasorduetan txapelketa asko antolatzen genituen. Klaustroa motibatuta zegoen eta lan handia egiten zuen. Tere, Roberto, Alizia... gogoratzen ditut.

Zelako emaitza eman zuen goiko ikastetxeko eta beheko taldeak uztartzeak?

Nire ustez nahiko ona. Lorpen batzuk izan zirela esango nuke. Hizkuntza aldetik zein kuadrillen aldetik, izan ere, hainbat kuadrilletan nahastu egin ziren bi taldeetakoak.

Zer aldatu da sasoi hartatik hona?

Lehen urteetan, hemen bazeuden ikasle talde batzuk oso onak, batik bat, neska batzuk, gelako erritmoa eramaten zuten eta asko aurreratzen zen. Orain, horrelako gelarik ez zaigu tokatu. Motibazio falta dago. Nik uste dut pixka bat gure kulpaa dela, guraso eta irakasle moduan, dena eginda ematen diegu eta. Irakasle batzuek errazera egiten dute eta segituan galdetzen dute, aldiz, egin behar dena da irakurri edo entzun, gero pentsatu eta pentsatu, eta, gero galdetu. Askorengan motibazio falta eta errazera joera ikusten dira.

Irakasle modura duzun esperientziatik, zein aholku emango zenioke gurasoei? Eta gazteei?

Ez, ez, ez, nik aholkurik ez dut emango. Aholkuak ematea erraza da. Bakoitzak jakin behar du zer egin behar duen. Nik uste bakoitzak bere lana egiten badugu, guraso bezala guraso lana,



Larrañaga gazteekin jolasten, egunero egiten duen moduan.

ERREPORTAJEA



2003an jaiotakoak Lizarrustiko kobazulotik irten eta gero.

irakasleok gure lana eta ikasleek berean saiatuko balira, asko aurreratuko litzatekeela. Ikasleen kasuan, adibidez, batzuekin zortea dugu eta autonomoak dira eta ez gara euren gainean egon behar, baina beste batzuei lagundu egin behar zaie. Guztiok desberdinak gara.

Esango zenuke guraso askok ez dutela guraso lanik egiten?

Zenbait etxetan giro onik ez badago (langabezia...) ez da erraza aurrera egitea.

Honengatik edo hargatik, baina askotan gazteek fama txarra dute. Justifikatuta dago hori?

Orain dela 400, 500... urte, baita lehenago ere, gazteei buruz gaizki berba egiten zen eta orain ere halaxe da. Begira Socrates filosofoak zer zioen gazteei buruz: "Gaurko gazteek luxua maite dute. Gaizki hezia da, autoritatea mespretxatzen du, ez ditu bere nagusiak errespetatzen, eta, lan egin behar duen bitartean txixumutxuka aritzen da. Gazteak ez dira zutitzen adinekoak gelara sartzen direnean. Gurasoei kontra egiten diete, harropuztu egiten dira gizartean, mahaian postreak irentsi egiten dituzte, hankak gurutzatzen dituzte eta irakasleak tiranizatzen dituzte". Lehen ere bazegoen jende bihurria eta orain ere bai. Orain, igual beste era batera, mobilekin, ziberbullynga dago, Inteligentzia Artifiziala... Bestalde, ni kezkatzen nau bereziki, azkenaldian telebistetan eta egunkarietan ere esaten dute, bere buruaz beste egiteko dagoen joerak, ez bakarrik gazteen artean, pertsona helduen artean ere bai. Beti egon da joera hori, baina orain, esaten ari direnez, handitzen ari da. Nire ustez, gauza asko daude horren atzetik. Bestalde, uste dut pandemiak,

etxean egote horrek eta bakardadeak ez duela lagundu. Nik uste dut ez digula onik egin ez gurasooi, ez irakasleei eta, batez ere, ikasleei.

Inplikazio falta ere egozten zaie gazteei.

Badaude batzuk segituan besteiei laguntzeko prest daudenak. Gaur bertan ikasle berri bat etorri da, ez daki ez erdaraz ez euskaraz hitzik ere, neska batzuk hurbildu dira harengana eta patiora ere lagundu diote.

Zelan bizi dituzue gero eta ugariagoak diren egoera horiek?



Espeleologia egiten.



Institutuko hainbat irakasle eta langile Txurrukan egindako bazkari batean.

"BADAUDE GAZTE BATZUK SEGITUAN BESTEEI LAGUNTZEKO PREST DAUDENAK"

"AURTEN ERE LAUPABOST IRAKASLEK ERREPIKATU EGIN DUTE, NAHIZ ETA SORALUZEN PLAZARIK EZ IZAN"

"EUSKARA ALDETIK EZ DU FUNTZIONATZEN, PLAENTXIAN ASKO JAITSI DA ERABILERA"

Ez da erraza. Ez guretzat, baina batez ere eurentzat. Bestearen tokian jarri behar dugu. Ni, adibidez, orain Txinara edo Errusiara joan behar izanez gero, zeharo galduta egongo nintzateke. Pentsa, hona etorri berria den neska horrek ez daki ez erdaraz, ez euskaraz eta anaiak ingelesa zerbait omen daki. Gaurko kasuan, beste ikasle batek egin du beraren eta nire arteko itzultzaile lana. Oso gogorra da eurentzat.

Urte asko eman dituzu bai Soraluzeko institutuan eta baita Azkoitiako Ikastolan ere. Zein alde on ikusten diozu horrenbeste urte leku berean egiteari?

Gustura baldin bazaude, aberasgarria da eta ez bazaude gustura, ba hobe aldatzea. Soraluzeko Institutuan, adibidez, aurtan ere laupabost irakaslek errepikatu egin dute; nahiz eta Soraluzeko Institutuan plaza finkorik ez izan, itzuli egin dira. Bestalde, hemen egon dira urtetan irakasle donostiarrak, urrutitik etortzen, Zarautzen-eta gertuago izan arren lan egiteko aukera. Klaustroan elkar ezagutzea, ikastetxea ezagutzea alde handia da. Soraluzeko ikastetxea nahiko txikia da eta horrek lagundu egiten du. Beste klaustro batzuetan, adibidez, ehun eta piku dira eta ez dute elkar ezagutzen.

Hezkuntzan 40 urte egin dituzu. Nola ikusten duzu gaur egungo Hezkuntza sistema?

Hezkuntza sistema ez dakit, baina, adibidez, euskara aldetik ez duela funtzionatzen garbi dago.



Ikasleekin tortilla lehiaketan.

Baina niretzat, kasu horretan, arazoa ez da hezkuntza, da gizartea-edo. Plaentxian, adibidez, nik urte hauetan sumatu dut asko jaitsi dela elkarren artean euskaraz hitz egiteko joera; nahiz eta gazteak euskaraz jakin eta haren etxean guraso biek euskaraz jakin, gazteen elkarren arteko harremanak euskaraz izatea asko jaitsi da, Plaentxian asko, nire ustez.

Akaso, Azkoitian egoera desberdina da?

Azkoitiara, adibidez, pakistandar asko etorri direla uste dut, txikiek segituan ikasten dute, kaleko giroa euskaraz delako. Baina gero, 15 urterekin-eta, euren artean taldeak egiten dituzte eta orduan... Ez da batere erraza.

Hezkuntza Legea dela-eta, eztabaida beroak sortu dira publikotasunaz, segregazioaz, hizkuntzaz... Zer iritzi duzu zuk?

Nik uste dut hezkuntzan gizarte osoak inplikatu behar duela. Adibidez, gurasoek, ikasleek eta irakasleek bat egin beharko genuke eta talde lana egin. Hezkuntza geuk egin behar dugu.

Uste duzu Soraluzeko Institutuan badagoela aukera horretarako? Zelan edo non landu daiteke, adibidez, inplikazio hori?

Ikastetxe txikia izanda, bai. Eskola Kontseiluetan, tutoreak ikaslearekin eta gurasoekin izaten diren bileretan, klaustroan...

Urte asko egin dituzu irakasle moduan. Oso estimatua zara zure ikasle izandako askoren artean; zer da irakasle ona izatea?

Irakasle ona da, nire ustez, ikasleak aurrera egin dezan lortzen duena; ez ikasketetan bakarrik, baizik eta pertsona moduan aurrera ateratzen laguntzen diona.

Baina hori Magisteritzan ez da irakatsiko, ala?

Ez dakit. Nire ustez, lana gustukoa izan eta lanean giro ona izatea garrantzitsua da.

Zuk lortu duzu halako emaitza pozgarririk?

Ikasle batzuekin lortzen duzu. Beste batzuekin ez, eta orduan... Pena handia sentitzen da, ez bakarrik zuk, gurasoek ere asko sufritzen dutela ikusten duzu.

Zela bizi duzu jakitea askok estimatzen zaituztela?

Bueno, batzuek estimatuko naute, baina beste batzuek ez. Dena den, lehengo egunean batek kaso egin zidan, 20 urte elkar ikusi gabe egonda, eta horrek poz eman zidan; nik ez nuen ezagutu.

Zer eman dizu zuri irakasle izateak?

Niri irakasle izateak jende askorekin harremanetan jartzeko eta jende desberdin asko ezagutzeko aukera ematen dit, irakasleak, gurasoak eta ikasleak.

Aldiz, zer egin zaizu etsigarri?

Ikusten duzunean ikasle batzuek gaizki bukatzen dutela, nahiz eta denok, gurasoak barne, asko ahalegindu. Niretzat, agian, hori da gogorrena.

Halakoak beti egon izan dira ala ugaritu egin dira?

Beti egon dira. Lehen beste irteera batzuk zituzten, 14 urterekin lanera joaten ziren. Orain kalean ikusten ditugu.

Zein oroitzapen gordeko duzu Institututik?



1995ean jaiotakoekin Loiolara egindako irteera batean.



Iñigo Larrañaga irakaslea 2000. urtean jaiotakoekin, irteera batean.

**"IRAKASLE ONA DA IKASLEAK
AURRERA EGITEA LORTZEN DUENA,
IKASKETETAN ETA PERTSONA
MODUAN"**

**"NIRETZAT GOGORRENA DA IKUSTEA
IKASLE BATZUEK GAIZKI BUKATZEN
DUTELA"**

**"SORALUZEN OSO ONDO HARTU
NINDUTEN ETA OSO GUSTURA NAGO
HEMEN"**

Oroitzapen oso onak. Adibidez, irteeretan, Lizarrustiko lezezulotik ateratakoan denak txerri eginda zelan egoten ginen, Gabonetan, berriz, baserri batetik astoa ekarri nahi genuen eta San Andres aldeko paso kanadarra pasatzeko egindako ahaleginak... Irteera asko eta asko.

Eta Soraluzetik, zein oroitzapen?

Soraluzetik oso oroitzapen ona eramango dut. Oso ondo hartu ninduten/ninduzuen eta oso gustura nago Soraluzen, bestela alde egingo nukeen aspaldi. Orokorrean, oso jende jatorra.

Gabonetan hartuko duzu erretiroa; zelan bizi dituzu laneko azken hilabeteak?

Normal, iaz ez nion inori esan, gero irakasle batek komentatu zuen ikasleen artean. Baina aurren bai. Irakasle ondarrutar bat ere badago nire jardun erdia betetzen. Baina ez dut pentsatzen erretiroan. Pentsatzen dudana bakarrik da urte asko ditudala, 63 urte. Bestela, nahiko gustura etortzen naiz ni hona.

Ez duzu pentsatzen hau edo haura egingo dut erretiratzeko naizenean?

Ez. Ama daukat, aita iaz hil zen, gaur ere amarekin egon naiz. Bestalde, nik ez daukat aspertzeko denborarik normalean, irakurri edo musika entzun edo mendira joan...



Hockeyko benjaminak eta alebinak joan den asteko entrenamenduan.

Bost talde eta modalitate librea

45 jokalarirekin hasi du denboraldia Marras Irristaketa Taldeak; dituen bost taldeetatik bat emakumeena da eta besteak mistoak

Joan den asteburuan ekin zion Marras Hockey Taldeak 2023-2024 denboraldiari bete-betean, entrenamenduez gain, denboraldiko lehen partidua jokatu. Horrekin batera, Irristaketa Librearen lehen saioa ere egin zuten domekan, eta, aurrerantzean, domekero eskainiko dute horretarako aukera, Araneko frontoian, 11:00etatik 13:00etara. Ekimena adin guztietarako dago zabalik.

45 jokalar

Aurtengo denboraldian, Marraseko bost talde ditu, emakumeak, jubenilak, infantilak, alebinak eta benjaminak, azken lau taldeak mistoak. Guztira, 45 bat ume-gaztek jardungo du hockeyan Marrasen eskutik. Astean birritan entrenatzen du talde bakoitzak. Liga txapelketari

dagokienez, berriz, jubenilek irailaren 30ean ekingo diote, infantilek urriaren 7an, alebinek urriaren 22an eta bejaminak urriaren 29an.

Dena den, Marrasetik adierazi dute lehen mailakoek atek zabalik dituztela hockeya probatu nahi badute. Horretarako, nahikoa da Marraseko ordezkariaren batekin harremanetan jarri edo eguenen baten entrenamendura bertaratu; 18:30ean hasten dira entrenatzen, Araneko frontoian.

Berrikuntzak

Bestalde, jakinarazitakoaren arabera, taldeetako ordezkarietan aldaketak egin dituzte "taldeak egonkortu eta 2019an hasitako egitasmoa indarberritzeko". Halaber, zuzendaritza-taldea ere berritu egin dute.

Tarifa finkoa ikastaroetan

Kiroldegiko erabiltzaileen artean interesa piztu du bertako ikastaroerik begira Udalak abiarazi duen tarifa finkoak. Haren arabera, ikastaro bakarrerako izena emanda, nahi beste ikastarotara joan daiteke erabiltzailea. Besteak beste, iaz sortu ez zen Spinning taldea dagoeneko sortu da eta Maria Gallastegi kiroldegiko udal teknikariak esandakoaren arabera, bazkide askok galdetu dute gaiaz.

Dena den, ikastaroak irailaren 18an hasi ziren, beraz, oraindik denbora beharko da tarifa finkoren eragina ikusteko.

Eskuragarriago

Tarifa finkoaren bitartez, Udalak herritarrentzat eskuragarriago jarri nahi ditu ikastaroak, ekonomikoki eskuragarriago eta, batez ere, ikastaro-eskaintza norberaren agendara hobeto egokitzeko aukera eman nahi du. Zazpi ikastarotan parte hartzeko aukera dago kiroldegian.

Hasi dira errugbi entrenamenduak

SoraGazteak Rugby Klubak aste honetan ekin die entrenamenduei, aldaketekin, 2023-2024an, 18:00etatik 19:30ak arte izango baitira entrenamenduak, baita Amen Taldearen saioak ere, futbol zelaian. 10, 12 eta 14 urtez azpikoetan dituzte jokalaria eta partidetarako Arrasateko taldearekin elkartuko dira.



Sorako talde guztiak Ezoziko Futbol Zelaian. UBANE MADERA

Bazkidetza kanpaina

Klubeko bazkidetza gehien bat nagusiek eta jokalarri beteranoek osatzen dutela ikusita, kanpaina abiatu dute egungo Sorako zaleak ere klubaren parte izan daitezten. Bazkide izateko urteko kuota 30 eurokoa da.

Futbol Eskolako formakuntza

Aurrekoz, bi entrenatzaile izango dira talde guztietan eta atezainek eurenak izango dituzte. Orokorrean, formakuntza metodologia hobetzea dute helburu, jokalarriak txikitatik Soran ikasi eta Gorengo mailara heltzean klubean gera daitezten.

Neska bi entrenatzaile

Klubaren egungo "egitura maskulinoa" aldatzeko ahaleginak egiten ere ari dira. Horren adibide, Ane Fidalgok eta Naroa Zubiaurre *Zubi-k* jardungo dute lehen urteko Benjaminen entrenatzaile. Epe ertain-luzera nesken talde bat sortzea espero dute eta emakumearen zelaiaz kanpoko rol-a ere indartu nahi dute, klubeko botere postuetan izatea bultzatuz.

Berritasunekin dator Sora

Hobekuntzak jokalarrien formakuntzan, bazkidetza kanpaina, parekidetasun plana... zuzendaritza berriak dakartzan egitasmoak.

Joan zen domekan aurkeztu zituen Soraluze Futbol Taldeak bere talde guztiak eta hastear den denboraldirako dituzten asmo eta proiektuen berri ere eman zuten. Zuzentzaritzari dagokionez, Alberto Losada da

presidente berria, diruzaina Aitor Sudupe, kirol zuzendaria Oier Ariznabarreta *Bosko*, futbol eskolaren arduraduna Iraultz Arluziaga eta bokalak, Arluziaga bera, Ina Larrañaga eta Javi Isturiz.

Boskori eta Txatori omenaldia

Aurkezpen egunean, Oier Ariznabarreta *Bosko* eta Jon Agirregomezkorta *Txato* jokalarri ohiak omendu zituzten. Talde guztiak pasilloa egin zieten Soraren aldageletako kornurretik zelai erdiraino. Bertan, oroigarriak jaso zituzten Alberto Losada presidentearen eta Soraren sortzaile izandako Jesus Arruabarrena *Ninoren* eskutik.



Aldaketak liburutegian

Liburuzain berria du liburutegiak, eta lanpostuaren zein eskaintzen diren zerbitzuen inguruko hausnarketa prozesu bati ekingo dio Udalak.

Amaia Aldaik erretiroa hartu du 18 urtez liburuzain izan ostean, eta plaza lortzeko oposizio deialdia egin bitartean, Uxue Agirre bergararra izango da liburutegiaren arduradun.

Honi lotuta, liburutegiaren inguruko hausnarketa prozesua abiatu du Udalak. Maite Quintanilla zinegotziak azaldu duenez, prozesuak bi oinarri ditu: alde batetik zerbitzu eraldaketa, eta bestetik, liburuzainaren profila zehaztea. Liburutegia "orain 20-30 urte bezala" dagoela ikusten dute, eta "gizartearen ohiturak eta gizartea bera aldatzeak" sortzen duela "eguneratzeko beharra". Erabiltzaileek zertarako erabiltzen duten, nola, noiz... aztertu nahi dute, eta haien ohitura eta ezaugarri desberdinetara egokitu.



Uxue Agirre, liburuzain berria. ANDER GOMEZ

Liburuzainaren profila

Agirre behin-behineko liburuzaina da, eta lanpostu finkoaren plaza atera bitarteko "trantsizio" garai hau "benetan aproposa" ikusten du Udalak zerbitzuak aztertu, datuak lortu eta liburuzainak beharko

lituzkeen egingizun eta ezaugarriak zehazteko: "nolako beharrak, halako profila".

Partaidetza eta epeak

Hausnartze prozesuaren gidaritza "liburutegitik eta liburuzainarekin batera" egin nahi dutela dio Quintanillak. Udal mailan lan-talde bat sortu dute eta, Agirrekin batera, diagnostikoa osatzeari ekin diote uda aurretik herritarrengandik jasotako zenbait datu baliatuta. Aurrerago, Udalaz kanpoko partaidetza bilatuko dute, eta horretarako, liburutegia sarri erabiltzen duten edota ezagutza-maila nahikoa eta aldatzeko gogoia duten herritarrengana joko dute.

Hausnarketa prozesua probaldia ere izango da, tartean, aldaketak egin (ordutegian, esaterako) eta berauen eraginkortasuna aztertuko baitute.

Lanpostu berriaren nondik norakoak gabon ostera bitartean zehaztu nahi dituzte, baina eraldaketa prozesu osoa ikasturte amaierara arte luza daitekeela aurreikusitako dute.

Arruabarrenaren obra ikusteko azken aukera


Juan Manuel Arruabarrena pintore soraluzetarraren "Simbiosis" erakusketa eguaztenera arte egongo da ikusgai Oreka Art aretoan.

Urriaren 7an, barikua, Haritz Gisasola eibartarraren "Begiratzea doakoa da" erakusketak hartuko dio erreleboa.





'Ez naiz inoiz Dublinden egon' antzezlan. TENTAZIOA



Saga antzezlaneko aktoreak. TXALO

Bi komedia eta musikal bat

Udazkeneko antzerki zikloaren baitan, urriaren eta azaroaren, hiru antzezlan taularatuko dira: bi komedia eta musikal bat.

Datorren barikuan, urriaren 6an, Txalo konpainiaren *La Saga*-k abiatuko aurtengo antzerki zikloa, 20:00etan, gazteleraz. Komedia euskal burgesiako Sagasti familian kokatzen da. Alabak erabakiko

du bere lehen abizena aldatu eta amarena hartzea, baina aita, Anton Sagasti, ez dator bat.

Ez naiz Dublinden inoiz egon
Urriaren 20an, taularatuko da Tentazioa konpainiaren *Ez naiz*

Dublinden inoiz egon komedia, euskaraz. Amesti familia Eguberri gaua ospatzeko bildu da, baina aurtengoa berezia da. Hiru urteeren ostean, Elena, alaba gaztea, Londrestik itzuli da. Inork espero ez duena da bere neskalaguna, Cindy, pertsonai ikusezin bat izatea.

'Sex sua' musikala
Azaroaren 17an, barikuan, Andoni Mutiloa aktoreak *Sex sua* musikala taularatuko du. Ligatzeko aplikazioak gaitzat duen lanean, antzerkia, dantza eta musika uztartuko ditu.

Euskal dantzak umeendako

Zabalik da LH1etik DBH4ra bitarteko ume eta gazteek Urrats dantza taldean izena emateko epea. Aurrez izena emanda daudenak astelehen arratsaldetan batuko dira 18:00etatik 19:15era eta aurten hasi berri diren LH2koak, berriz, astearteetan, 19:00etatik 19:45era. Izena urratsdantza@gmail.com helbidera idatzita.

Musika saioak Gaztetxean

Urriaren zehar, hiru musika saio egingo dira Gaztetxean. Lehena, zapatu arratsaldean, Txaberriak aurkeztuta: Portobello project Britop saioa eta Elsa Brut & A.Caine Binilo-diska pintxada. Urriaren 14an, Boiler room erako tekno jaialdia egingo da eta urriaren 20an, berriz, Harat eta Braulio taldeek rock kontzertuak eskainiko dituzte.

Ate irekiak abesbatzan

Urriaren 2an, astelehena, Ezoziko Ama Abesbatzak entsegu-aretoko atea irekiko ditu "herriko kantuzaleak" gertura daitezzen. 20:30ean, Batzokiko lehenengo pisuan, Errenteriako Gabon-kanten txapelketarako prestatzen ari diren kantuak interpretatuko dituzte eta edozein hurreratu ahal izango da.

"Mundua aldatu ahal dugu hazkuntza aldatzen badugu"

ANE YABAR TORNOS SORALUZETIK EGINORA

TESTUA UBANE MADERA ZANGITU

ARGAZKIAK: ANE YABAR TORNOS

Ane Yabar Tornos (Soraluze, 1979) Eginon bizi da 2020tik. 2004an joan zen Arabara bizi izatera, ahizpa Nerearekin. Gasteizen lehenengo, Legution gero, Araia, Ilardui eta Ziordia ere izan ditu bizileku, orain dela hiru urte Eginon etxea erosi arte. Jule (2015) eta Haran (2011) ditu seme-alaba eta Francisco Estevez, *Txisko*, soraluzetarra, berriz, senar. Umeekin lan egiten du Yabarrek, besteak beste, coach da, Hazkuntza Kontzientean masterduna.

Zergatik aukeratu duzu Araba bizileku?

Alemanian bizitzen egon ondoren, gurasoen etxetik irteteko, ahizpa eta biok Gasteizera joan ginen bizitzera, Nereak han ikasi zuen. Gero lana aurkitu nuen Gasteizen eta Araba aldean geratu nintzen. Araiara amatasunarengatik joan nintzen, ahizpa Eginon bizi zen (Araiatik gertu) eta bigarren aldiz haurdun geratu nintzenez, "tribuaren bila" joan nintzen Araiara.



Ane Yabar.

Soraluze baino herri txikiagoetan bizi izan zara; zer duzu gustuko halakoetatik?

Bai, Eginok, adibidez, 50 bat biztanle ditu. Gustuko dut naturarekin duen kontaktua, lasaitasuna, egunerokotasuneko erritmoa eta herrian dagoen giroa edo jendearen artean dagoen harreman gertukoa. Denok ezagutzen dugu elkar, familia handi bat bezala. Bitxikeria moduan, Eginoko 50 biztanletatik 4 soraluzetarrak gara: Nerea eta neu, Francisco Estevez, *Txisko*, senarra eta

Irene Alberdi, bertako komentuko Ama Nagusia da. **Umeekin egiten duzu lan, ezta?** Araian nago lanean, Nerearekin batera, Araiako Jolaslekuan (ludoteka). Umeen arteko jolas librea balorean ipintzen dugu. 100 bat ume daude inskribatuta; egunero ez doaz, baina 40 bat ume egoten dira askotan, Asparrena eskualdekoak. (Araia, Egino, Albeniz, Ilardui...). Bertako ume guztiek ezagutzen gaituzte. **Horrez aparte, Hazkuntza kontzientean aholkularia zara. Zer da hori?**

Orain urtebete, urte eta erdi inguru hasi nintzen lehen pausoak ematen. Web orria lantzen nabil, aholkularitza zerbitzua eskaintzen dut eta banakako akonpainamendu prozesuak. Iaz, berriz, tailer presentzialak Gasteizen egin nituen eta azaroan bigarren edizioa egingo dugu; online formazioa ere eskaintzen dut eta azaroan beste programa bat aterako dugu online.

(Harremanetarako: 605 74 29 05).

Zela definituko zenuke Hazkuntza Kontzientea?



Nerea Yabar, Txisko Estevez, Irene Alberdi eta Ane Yabar, Eginton bizi diren lau soraluzetarrak.



Ane Yabar Jolaslekuan.

Errespetuzko hazkuntza bilatzen du, eta bide horretan kontzientzia hartzea, bai helduen beharrez, baita umeen beharrez eta zailtasunez ere. Adibidez, errespetuzko harremana landu nahi denean, umearen beharrak asetze horretan, askotan automatikokierrepikatzen ditugu egin nahi ez diren gauzak, adibidez, umea garrasika tratatzea. Askotan, haurtzaroko esperientziak edo erreprimitutako emozioak azalera tzearen ondorioa izaten da. Auto-ezagutza ere sartzen da hor.

Zein emaitza ematen du zure zerbitzuak?

Haurrekin harremana, binkulua estutzea eta umeari bere nortasuna garatzea ahalbidetzea, bera den modukoa izatea. Azkenean, gurasoen espektatibek nahi dutena modukoa baino, umea bera izatez den modukoa izaten laguntzea.

Gehiago landu beharko genuke hori gaur egungo gizartean?

Bai, kontzientzia ipini behar da, bestela jarrera berberak errepikatzen dira. Maitatua, errespetatua eta entzuna izan

den ume batek helduaroan ez du izango beste bati mina emateko beharrik. Ni ama izan nintzenean konturatu nintzen horrekin. Nire burua umeari garrasika, edo umearekin desesperatuta... ikusi nuenean, konturatu nintzen nire barruan banituela gauzak barneratuta, eta, hor kontzientzia jarrita, badagoela hori aldatzerik. Mundua aldatu egin ahal dugu hazkuntza mota aldatzen badugu. Hori da nire konbikzioetako bat.

Herriko kontuetara bueltatuz, etortzen zara bisitan?

Nahi baino gutxiago. Gurasoak bisitatuzera, batez ere Txiskorenak, ez baitute kotxerik. Bi hilean behin-edo joaten gara.

Zelan ikusten da Soraluze urteak kanpoan daramatzan baten begietatik?

"ASKOTAN ENTZUTEN DUT PLAENTXIAKO JENDEA OSO JATORRA DELA ETA BAT NATOR HORREKIN"



Txisko, Ane, Jule eta Haran.

Betiko antzera. Ikusten dut, akaso, kanpotar jende gehiago. Bestela, giroa, jendea... antzerako.

Beste zer bait nahi duzu gaineratu?

Plaentxiatik kanpo bizi izan arren, herria beti daukadala presente. Askotan, hemen, jendearekin berba egiten, beti Plaentxiakoa naizela-eta, jende askok ezagutzen du Plaentxia eta nik ezer esan gabe besteek esaten dute jendea oso jatorra dela. Hori askotan entzun dut eta bat nator. Maite dut, batez ere, herriko jendea. .

ZORION AGURRAK




Libe Elortza Ugalde
Abuztuaren 5ean 8 urte. Zorionak! 8 urte bete ditzugu! Mila kilo zorion Plazentziako eta Azkoitiko familia guztian partez!



Sara eta Maren Aldazabal Castillo
Abuztuaren 21ean eta irailaren 25ean, 6 eta 10 urte. Zorionak gure bi sorgintxoetxekoen partez!



Iraia Larrañaga
Irailaren 7an 8 urte. Zorionak maitxia, etxekuen partez, segi beti bezain alai!



Suar Blanco Elizburu
Abuztuaren 4an 12 urte. Zorionak txapeldun!!! Askok maite zaitugu. Etxekoak.



Aiora Elizburu Guenetxea
Abuztuaren 6an 42 urte. Zorionak preziosoa! Zoriontsu izan. Etxekoak.



Julen Aristi Sanchez
Irailaren 5ean 5 urte. Jarraitu beti bezain alai eta irrifartxu. Muxu handi bat familia guztian partez.



Iñaki Larrañaga Macias
Irailaren 7an 56 urte. Zorionak Iñaki!!!



Peru Soriano Sebal
Irailaren 27an 7 urte. Zorionak Super Peru! Etxeko mutil haundixak zara, ta asko maixte zaitzugu. Familia guztian partez!



Irene Agirre Arrillaga
Irailaren 6an 14 urte. Zorionak Irene zure 14. urtebetetzan. Disfrutau eguna eta ondo bukatu oporrak!



Markel Atxotegi Arruabarrena
Irailaren 17an 4 urte. Zorionak! Segi beti bezain jator eta alai. Besarkada handi bat etxeko guztien partez.



Haizea Prol Apellaniz
Abuztuaren 15ean 4 urte. Zorionak!



Irati Iñurrieta Gantxegi
Abuztuaren 27an 34 urte. Zorionak maitxia eta muxu piloa eta besarkada potolo asko etxekuen partez.



Elene Alberdi Fayanas
Irailaren 13an 2 urte. Zorionak bihotza!! Muxu erraldoi bat!!!



Mara Carretero Mendo
Abuztuaren 7an, urtebete. Zorionak maitxia! Jarraitxu zure irribarrikin gure etxiak alaitzen! Askok maixte zaitugu.



Juan Nieves eta Francisca Garcia
Abuztuaren 16an 60 urte ezkontuta. Zorionak aitaitxa eta amama etxekoen partez.

administradores Centro Vasco de Estudios de Administración de Empresas
Escuela de Estudios de Administración de Empresas

ROSA M^a PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Gas-hornitzailea dugun enpresak jakinarazi digu ga skontagailueta-risteko plataforma bat jarri beharko genukeela, segurtasun arrazoiak tarteko. Gaur egun, kontagailu horiek patio batean daude, eta portaletik sartzen da hara, baina patio horretako zorua lokal baten teilatua da. Lokal-jabe horrek ez du zuten bere teiltatu horretan fatxadari lotutako inongo plataformarik jartzen. Jakin nahiko nuke lokal jabe horrek eskubiderik duen uko egiteko, jakinda instalazio hori gabe ezingo direla kontagailuak irakurri.

Teiltatu gainean plataforma bat jartzea ez da uko egiteko arrazoiak, plataforma hori fatxadari lotuta egonda, eta nire iritiz, fatxadari lotuta egon ezta ere, ez luke uko egiteko arrazoi izan beharko, teiltatu-zoru hori elementu komuna delako. Legez, etxe-jabe guztiak behartuta daude euren etxe eta lokaletan eraikinak eskatzen dituen obra eta bestelakoak egiteko baimena ematera.

ONDORIOA: Komunitate horrek legez ezarritako baldintza bat bete behar badu, jabeak hori derrigortuta dago baimena ematera



AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2

JAIOBERRIAK



Iris Prol Apellaniz
Abuztuaren 1ean jaio zen.

HILDAKOAK ETA JAIOTAKOAK

Hildakoak
Ciriaca Aranzabal Gantxegi
Maria Eugenia Ariznabarreta
Txurruka
Engracia Azpeitia Egaña
Julio Alberdi Larrañaga
Jaiotakoak
Iris Prol Apellaniz

SORALUZE MOTOR
Mendiola ind. 13 Soraluze
576 556 817 - 943 75 21 38

Hortz klinika Euzbal 1 Tel.: 943 75 16 13
Javier Alonso Mediku Estomatologia K.Z. 48.000.590
Katala Gustinne Odontologoa K.Z. 48.001.541

30 urte baino gehiagoko esperientzia
odontologia, protesiak, ortodontia, odontopediatria, ingurmentak, estetika...
Zerbitzu radiologiko onakorra (300) eskumenak, orfito eta leke.

MENDIZABAL okindegia
Ogia - Prentsa - Gosariak

Asteheneretik ostiralera:
08:00 - 13:00
17:00 - 20:00
Larunbatak eta igandeak
08:30 - 13:15

Kalebarran 10
Tel.: 943 75 13 99

Txoko

Eguneko menuak, plater konbinatuak, hamburgerenak, ogitarakoak, radiak, pizzak, gosaria...

Enkarguak egiten dira
Tel. 943 75 17 88

OKELIA HARATEGIA

- Enkarguak hartzen ditugu
- Gertuko gasadus
- Etxeko tripaki, biteloma, salbitza eta mingaina

Etxaburuta 3
Telefonoa: 943 75 23 75

FOGASLER
ITURGINTZA

943 75 16 46 (Soraluze) - 943 71 82 49 (Oñati)
fogasleriturgintza@gmail.com

MGS Seguros

Veronica Galarraga
Gertukoak eta segurua

Asteheneretik ostiralera: 10:00 - 13:30 eta 17:00 - 19:30
Santa Ana 13
☎ 945 744 055

ION MURGIZU BAKAIKOA PINTOREA

antena dekorazioakoa industriala

Tel. 943 75 13 24 Mug. 652 77 70 30

Almar

Itxaspaingedia
Estetika
Solariama

Gabriel 4, Ibaeta Tel. 943 75 13 11 - 642 51 34 94

Bidelagun euskaltzaletasunean

UMEENTZAKO TAILERRAK

2023-2024 URRITIK MAIATZERA

ZIRKOA

Gorputz adierazpena, mugimendua eta sormena

Zirko-teknika ezberdinak

Irakaslea: Xabier Larrea

Adina: LH1-LH6

Eguna: Asteartea, 17:00-18:00

Kuota: Hilean 20 euro

BERTSOLARITZA

Memoria, hizkuntza-gaitasuna eta sormena

Bertsolarien bisita eta irteerak

Irakaslea: Eneko Beretxinaga

Adina: LH4-LH6

Eguna: Asteartea, 13:15-14:15

Kuota: Hilean 10 euro

ARTE PLASTIKOAK

Psikomotrizitate fina eta sormena
Pintura, marrazkia, buzingintza, collage...

Irakaslea: Amaia Santamaria

Adina: LH1-LH6

Egunak: Astelehena 18:00-19:30,
asteartea 17:30-19:00 edo osteguna
17:30-19:00

Kuota: Hilean 25 euro

IZEN-EMATEA: Urriaren 13ra arte,
Udaleko Harrera Bulegoan.
Matrikula ordaintzeko hobariei buruz
udaletxean galdetu.



SORLUZEKO
UDALA



SORLUZEKO UDALA

Antzerki garaia



LA SAGA

Txalo produkzioak

Komedia

EGUNA
Urriak 6, ostirala
ORDUA
20:00

GIDIOA
Ramón Madalua
ZUZENDARIA
Begoña Bilbao
ANTZEZLEAK
Joseba Aguilaza, Koldo Olabarri,
Ainhoa Etxebarria
HIZKUNTZA
Gaztelera
SARRERA
10 €




EZ NAIZ INOIZ DUBLINEN EGON

Tantaka teatroa

Komedia

EGUNA
Urriak 20, ostirala
ORDUA
20:00

GIDIOA
Markos Gokiolea
ZUZENDARIA
Mireia Gabilondo
ANTZEZLEAK
Aitziber Garmendia, Mireia Gabilondo,
Iñigo Aranburu, Iñigo Azpitarte
HIZKUNTZA
Euskara
SARRERA
10 €



SEX SUA

Elur etxea teatroa

Musikala

EGUNA
Azaroak 17, ostirala
ORDUA
20:00

GIDIOA ETA ZUZENDARITZA
Andoni Mutilloa
ANTZEZLEAK
Andoni Mutilloa
HIZKUNTZA
Euskara
SARRERA
5 €



SORLUZEKO
UDALA
Kultura Berrikuntza

Gipuzkoako
Funtzionarioak
Berria, Berria, Berria



OGANU
KULTURA